

2020ko laugarren hiruhilekoan ezkontzen kopurua % 30,7 jaitsi zen

2020ko balantzea: Ezkontza-kopurua ia erdira jaitsi da

2020ko laugarren hiruhilekoan, Euskal AEn 1.167 ezkontza egin ziren, aurreko urteko hiruhileko berean baino % 30,7 gutxiago, Eustaten datuen arabera.

Ezkontza-kopuruak behera egin zuen hiru lurraldeetan: Araban 154 ezkontza izan ziren (-% 33,3), Bizkaian 565 (-% 31,6) eta Gipuzkoan 378 (-% 30,5). Beste alde batetik, 70 bikotek bizilekua Euskal AEtik kanpo kokatu zuten.

Ezkontza guztietarik 46 sexu bereko pertsonen artekoak izan ziren –30 emakumeen artekoak eta 16 gizonen artekoak–, eta besteak, 1.121, ezkontza heterosexualak izan ziren. 2020ko laugarren hiruhilekoan, 10 ezkontzatatik 9 zibil izan ziren (% 94), aurreko urteko aldi berean baino ehuneko 3,7 puntu gehiago.

2020ko laugarren hiruhilekoko 1.167 ezkontzetan, bizilekua Euskal AEn duten 1.100 gizonetzko eta 1.130 emakumezko ezkondu ziren. 862 senarrentzat (% 78,4), lehen ezkontza izan zen; 17 alargun eta 221 dibortziatu, aldiz, berriro ezkondu ziren. Emakumeen lehen ezkontzen ehunekoa gizonena baino handiagoa izan zen: aurretik ezkondu gabe zeuden emakumeak 895 izan ziren (% 79,2), alargunak 10 eta dibortziatuak 225.

Ezkontideen adinaren araberrako banaketari dagokionez, senarren % 90,2k eta emazteen % 85,7k 30 urtetik gora zituzten. 2019ko epealdi berean, ehuneko hori % 90,8 izan zen gizonen artean eta % 85,7 emakumeen artean, ia-ia berdina.

2020ko laugarren hiruhilekoan, gizonetzko ezkonberrien % 16,5ek eta emakumezko ezkonberrien % 22,5ek atzerriko nazionalitatea zuten; horrenbestez, gizonen artean ehuneko 3,4 puntuko igoera izan da, eta emakumeen artean 1,8 puntukoa, 2019ko aldi berarekin alderatuta.

2020KO BALANTZEA: 4.041 ezkontza izan ziren, aurreko urtean baino % 45,9 gutxiago

2020ko behin-behineko zenbaketan, Euskal AEn bizilekua zuten pertsonen ezkontzak 4.041 izan ziren, 2019an baino % 45,9 gutxiago.

Ezkontza zibilak % 93,8 izan ziren, 2019ko % 87,5aren gainetik. Era berean, ezkontideen adinak ere gora egin duela ikus daiteke; izan ere, senarren % 91,4k eta emazteen % 84,8k 30 urte edo gehiago zituzten; ehuneko horiek % 90,2 eta % 82,7 izan ziren, hurrenez hurren, 2019an.

2020 osoan, senarren % 15,2k eta emazteen % 21,5ek atzerriko nazionalitatea zuten, berriz ere nabarmen 2019ko ehunekoen gainetik (% 10,6 eta % 15,3, hurrenez hurren).

Euskal AEko ezkontzak egoitzako lurralde, sexu, aurreko egoera zibil, eta ospatzeko moduaren arabera (1)


	Oraingo hiru hilakoa 2020/IV		Aurreko hiru hilakoa (2020/III)		Aurreko urteko hiruh. bera (2019/IV)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	1.167	100,0	1.486	100,0	1.683	100,0
Araba / Álava	154	13,2	197	13,3	231	13,7
Bizkaia	565	48,4	722	48,6	826	49,1
Gipuzkoa	378	32,4	491	33,0	544	32,3
Euskal AETik kanpo	70	6,0	76	5,1	82	4,9
<u>Homosexualak</u>	46	3,9	47	3,2	45	2,7
Gizon artean	16	1,4	15	1,0	15	0,9
Emakume artean	30	2,6	32	2,2	30	1,8
<u>Heterosexualak</u>	1.121	96,1	1.439	96,8	1.638	97,3
Kanonikoak	69	5,9	143	9,6	163	9,7
Zibilak	1.052	90,1	1.296	87,2	1.475	87,6
SENARGAIK	1.100	100,0	1.398	100,0	1.582	100,0
Ez kongabeak	862	78,4	1.135	81,2	1.308	82,7
Alargunak	17	1,5	15	1,1	18	1,1
Dibortziatuak	221	20,1	248	17,7	256	16,2
< 30 urte	107	9,7	98	7,0	145	9,2
30 - 39 urte	402	36,5	615	44,0	709	44,8
≥ 40 urte	591	53,7	685	49,0	728	46,0
Espainiarrak	919	83,5	1.259	90,1	1.374	86,9
Atzeritarrak	181	16,5	139	9,9	208	13,1
EMAZTEGAIK	1.130	100,0	1.431	100,0	1.607	100,0
Ez kongabeak	895	79,2	1.190	83,2	1.318	82,0
Alargunak	10	0,9	13	0,9	18	1,1
Dibortziatuak	225	19,9	228	15,9	271	16,9
< 30 urte	161	14,2	223	16,0	251	15,9
30 - 39 urte	458	40,5	655	46,9	740	46,8
≥ 40 urte	511	45,2	553	39,6	616	38,9
Espainiarrak	876	77,5	1.223	87,5	1.279	80,8
Atzeritarrak	254	22,5	208	14,9	328	20,7

(1) Oraingo eta aurreko hiruhilabeteko datuak behin-behinekoak dira

Iturria: Eustat. Ezkontzen estatistika

Euskal AE ezkontzak, egoitza lekuaren arabera

Hileroko datuak



Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62